

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Tokiko gobernu batzarreko kideek uko egitea eta kideak izendatzea

Aguraingo alkateak, uztailaren 10eko 111/2023 Dekretuaren bidez, ebazpen hau eman du:

Kontuan hartu da 100/2023 Dekretua, 2023ko ekainaren 27koa, honako zinegotzi hauek Tokiko Gobernu Batzarreko kideak izendatzen dituen:

- Bakartxo Bravo Urbina.
- Ruth Lafuente Galarza.
- Ernesto Sainz Lanchares.

Kontuan hartu da EAJ/PNV udal taldeak 2023ko uztailaren 7an bidalitako idazkia, zeinaren bidez Ernesto Sainz Lanchares zinegotziak uko egiten baitio Tokiko Gobernu Batzarrean parte hartzeari.

Kontuan hartu da azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak onetsitako Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 52. eta 53. artikuluetan ezarritakoa,

EBATZI DUT

1) EAJ/PNV udal taldeak aurkeztutako Ernesto Sainz Lanchares zinegotziaren ukoaren jakitun geratzea eta honako zinegotzi hau Tokiko Gobernu Batzarreko kide izendatzea:

- Francisco Javier Sáez de Urabain Ruiz de Gauna.
- 2) Izendapen hori interesdunari jakinaraztea.
 - 3) Udalbatzari horren guztiaren berri ematea egiten den lehenengo osoko bilkuran.
 - 4) Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Agurain, 2023ko uztailaren 11

Alkatea

RAÚL LÓPEZ DE URALDE BALTASAR